



BIKAIN

EUSKARAREN
KALITATE-ZIURTAGIRIA
SEKTORE PRIBATUAN

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAIA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

1

ZER da BIKAIN?

BIKAIN Eusko Jaurlaritzak ematen duen ziurtagiri ofiziala, publikoa eta doakoa da eta esparru sozioekonomikoan euskararen presentziaren, erabileraren eta kudeaketaren normalizazio-maila egiaztatu eta aitortzen du. Izen ofiziala hauxe da: **Bikain – Euskararen Kalitate-ziurtagiria**

Bikain ziurtagiria Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kudeatzen duen aitortza-sistema integral baten katebegia da.

Bikain 2008an sortu zen eta gaur arte 500 erakundetik gora ebaluatu dira.

NORK ESKA dezake BIKAIN ebaluazioa?

Beren jarduera Euskal Autonomia Erkidegoan duten eta, gutxienez, bi langile dituzten esparru sozioekonomikoko erakunde pribatuek, osorik edo partzialki.

Kanpoan geratzen dira lantoki fisikorik ez duten erakundeak.

3

NORK EBALUATZEN du?

Bikain Ebaluatzaileen Klubari dagokio sektore sozioekonomiko pribatuari lotutako ebaluazioak egitea. Ebaluazio bakoitzerako talde bat eratzen da, eta ebaluatzaileek Idazkaritza Teknikoaren gidaritzapean egingo dute lan hori.

2

BIKAINEN HELBURUAK:

- Esparru sozioekonomiko pribatuan euskararen erabileraren, presentziaren eta kudeaketaren normalizazio-maila egiaztatzea eta aitortzea.
- Sektore pribatuan euskararen erabilera areagotzea.
- Erakundeen ezaugarri eta egoeretara egokitutako ebaluazio-prozesuak eskaintzea.
- Erakunde pribatuei euskararen erabileran eta kudeaketan urratsak emateko laguntza ematea.
- Kanpoko adituen ebaluazioaren bitartez entitateei beren indarguneak sendotzeko, zer hobetuak begiz jotzeko, eta aurrera egiteko oinarritzko orientabideak ematea.
- Praktika onak partekatzea, erakunde eta ebaluatzaileen artean.
- Erakunde hauetako askotan erabiltzen diren kudeaketa-sistema aurreratuetan hizkuntza-kudeaketa txertatzea.
- Honelako prozesuak abian dituzten erakundeei egindako lanaren eta ahaleginaren aitortza egitea eta berme instituzionala eskaintzea.

5

NOLA lortu BIKAIN-Euskararen Kalitate-ziurtagiria?

BIKAINeko ebaluazioa jasotzeko, emango zaien eredu baten arabera egindako aurkezpen dokumentua prestatu behar dute entitateek. Ondoren, ebaluazio-talde baten ikuspegia eta kontrastea jasoko dute, aurrera egiten laguntzeko. Gainera, kanpoko ikuspegi hau jaso ondoren, hala badagokio, erakundeei egindako lana aitortzeko euskararen kudeaketa ziurtagiria emango zaie ekitaldi publiko batean.

4

BIKAIN ebaluazioa lortzeko BALDINTZAK:

6

Ebaluazioa jasoko duten erakundeek bete beharreko nahitaezko baldintzak:

- Ebaluatua izateko eskaera egiten duen entitateak prozesuaren hasieran egingo den informazio-bilerara joan beharko du.
- Erakundeko plantillako pertsona bat solaskide izendatuko dute, Idazkaritza Teknikoarekiko harremana bidera dezan prozesu osoan.
- Erakundeko langile batek, gutxienez, Bikain prestakuntza-saioetan parte hartu beharko du. Kopurua aukeratutako ebaluazio-prozesuaren eta erakundearen taiminaren arabera izango da.
- Prestakuntza jasotzen duten langileek beste erakunde baten ebaluazioan parte hartu beharko dute ebaluazioa jasotzen duten prozesuan bertan.
- Erakundeak aurkezpen-dokumentua osatu beharko du, bere zerbitzuak, bezero-motak, barne egitura eta gainerako ezaugarrien berri emateko, euskararen erabilera eta kudeaketaren inguruko autodiagnostikoarekin batera.

1.
Oinarrizko
mailakoa



2.
Erdi-
mailakoa



3.
Goi-
mailakoa



Zeintzuk dira BIKAIN ziurtagiriaren MAILA ezberdinak?

Bikain – Euskararen Kalitate-ziurtagiriak **hiru** egiaztapen maila ditu.

7

BIKAIN ziurtagiriak eskuratzeko PROZESU MOTA ezberdinak daude?

8

Bai. Hauek dira BIKAIN ziurtagiriak eskuratzeko ebaluazio-prozesu motak, erakundearen ezaugarri eta euskararen erabilera eta kudeaketa mailari egokituak:

Prozesu mota

Lor daitekeen ziurtagiria

Oinarrizko ziurtagiria eskuratzeko ebaluazio-prozesu sinplifikatua



Bikain - Euskararen Kalitate-ziurtagiria eskuratzeko ohiko ebaluazio-prozesua



Goi-mailako ziurtagiria berritzeko ebaluazio-prozesua



NOLA gauzatzen da BIKAIN ebaluazioa?

9

Kanpoko talde ebaluatzaile batek erakundea ebaluatuko du, indarguneak eta zer-hobetuak identifikatuz. Ebaluazioa ez da prozesuaren bukaera; bertatik jasotako informazioak euskararen presentzian, erabileran eta kudeaketan aurrera egiten lagun diezazuke.

Hizkuntza-kudeaketaren kalitatea ebaluatzeko eta egiaztatzeko sistemak oinarrian duen osagaia Erreferentzia Marko Estandarra (EME) da. EME lanerako markoa da, ez-arauemailea.

10 **Eta,** **nolakoa** **da EME?**

EMEk bi ardatz ditu:

- 1) Zerbitzu-hizkuntza: erakundeak irudian eta komunikazioan erabiltzen duena, eta lanpostuari dagozkion zereginak betetzerakoan herritarrekin ahoz, idatziz nahiz euskarri informatikoetan erabiltzen duena.
- 2) Lan-hizkuntza: erakunde bateko langileak lan jarduketan erabiltzen duen hizkuntza; hau da, erakundeko zereginak eta jarduerak egiteko ahoz, idatziz nahiz euskarri informatikoan erabiltzen duena: pertsonen kudeaketan, sistemen kudeaketan, komunikazio horizontal eta bertikalean, lan-prestakuntzan eta abar.

1. ARDATZA: ZERBITZU HIZKUNTZA	1. Erakundearen irudia
	2. Bezeroekiko (pertsone fisikoak) eta herritarrekiko harremanak
2. ARDATZA: LAN HIZKUNTZA	3. Barne-komunikazioa eta lan-tresnak
	4. Pertsonen kudeaketa
	5. Kanpo-harremanak
	6. Kudeaketa Sistema

Bi ardatz horietan erakunde bateko hizkuntza baten erabileraren, presentziaren eta kudeaketaren berri ematen duten osagaiak modu ordenatuan eta integratuan jasotzen dira. Ardatz bakoitza elementu eta azpi elementuetan hedatzen da, orokorrenetik zehatzenera, erakundeei buruzko ikuspegi xeheagoa eman eta zer ebaluatu errazteko.

Eskaera Eusko Jaurilaritzako egoitza elektronikokoaren bidez egin behar da:



Behin eskaera onartu eta gero, Bikain aplikazioa erabili behar da ebaluazio-prozesuari dagozkion lanak egiteko:



NOLA eskatu
BIKAIN
ebaluazioa?
Egin eskaera!

Harremanetarako

Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako Zuzendaritza
945018109 / 945018115 / 945019487
bikain@euskadi.eus